13. Hiri-hazkunde formak I

1. Sarrera. Hiri-hazkunde formak: garai historiko bakoitzaren hiri-zati bereizgarriak, partzelazio (lurzorua betetzeko egituraketa, hots, jabego ezberdinen mugaketa), urbanizazio (hiri-zerbitzuak banatzeko azpiegitura: ur-, gas- eta elektrizitate-hornidura eta huste-sarea) eta eraikuntza mota (edo tipo) jakin bat dutenak.
2. Oinarrizko hiri-hazkunde formak, XVIII. mendera arte:

- Historiaurreko hiri-hazkunde formak: Plangintzarik gabeko hazkunde organikoa. Adibideak: Herrixka neolitiko etruriarrak (K.a.1500). Herrizka garaikide kamerundarra.

- Garai Klasikoko hiri-hazkunde formak:

· Hiri berri helenistikoa: Miletoko Hipodamo, "hirigintzaren aita"tzat jo daitekeena. Miletoko berreraikitzea (K.a. 479, 30x52 metroko insulak), Olintoko zabalgunea (K.a. 432, 35x86 metroko insulak); Prienen hiri-bilbe bera erabili zen (K.a. 350, 35x45ko insulak).

· Zenturiazio erromatarra. (*Centuriae*: ~700x700m (edo 20x20 *actus*); *Actus*: ~35x35m). Adibidea: Ponpeiako zabalgunea (K.a. V.mendea, 35x100 metroko insulak). Milanon (erromatarren *Mediolanum*) eta Bartzelonan (erromatarren *Barcino* edo *Barceno*) *Cardo* (edo *Cardus maximus*) eta *Decumanus maximus* kaleen hondarrak.

- Erdi Aroko hiri-hazkunde formak:

· Baserri bakartua: Euskal ipar-isurialdeko landa-eremuko eraikin tiporik garrantzitsuena. Adibidea: Igartubeiti, Ezkio-Itsaso, XVI. mendekoa (dolare-baserri gipuzkoarra motatakoa: etxea makina gisa).

· Elizatea: Eliza baten inguruko etxe edo baserri-multzoa. Elizako atarian biltzen ziren erabaki politikoak hartzeko. Adibideak: Oñatiko Araotzeko elizatea. Arrasateko Bedoñako elizatea. Orozko bailarako elizate edo auzoak (Zaloa, Murueta, San Martin, Olarte… "*Ermitatik ermitara*" ibilaldiaren ospakizuna, 2007an).

· Hiribildua: Erdi Aroko hiri mota, eliza edo monastegi baten inguruan sortua, eskuarki harresiz inguratua. Hiribildu izaera errege eta auzo baten arteko itunaren ondorioz eskuratzen zen, *hiri-gutuna* delako agiriaren bidez (bertan idazten ziren hiribilduen foruak). Euskal Herrian 100 hiribildu inguru sortu zituzten Erdi Aroan. Adibideak: Gasteizko hiri-gutuna, 1181ekoa. Arrasate, 1260. Berna, Suitza. Rottweil, Alemania.

· Burgua: Erdi Aroaren bukaerako hiribilduaren harresiez kanpoko herrixka erdiantolatua, eskuarki udaletxe eta azoka baten inguruan sortua, hiribilduaren menpekoa dena. Askotan, hiribildua bezala harresiez gotortzen zen (*burgu* Erdi Aroaren hasierako gaztelu militar txikiei ere esaten zitzaien). Adibideak: Rottweil, Alemania. Iruñeako burguak, XIV. mendea. Ikus http://eu.wikipedia.org/wiki/Burgu_(hirigintza).

· Dorretxea eta hiri-jauregia. Berez, ez dira hazkunde-formak, baizik eta eraikin-tipoak. Erdi Aroko dorretxeek funtzio militarra zuten, eta hirietatik aparte, landa-eremuan ere kokatzen ziren. Adibideak: Zallako Herrera dorretxea, Enkarterriak. Ipeñarrieta dorretxea, Urretxu. Gasteizko Otxanda dorretxea (XVI. mendekoa) eta Kordoi Etxea, XIII. mendekoa. Jauregiak geroago sortuak dira, Pizkundean eta Barrokoan, eta, eskuarki, patio bat dute. Adibideak: Zalduondoko Lazarragatarren jauregia, XVI. mendekoa. Lazkaoko Lazkaotarren jauregia, XVII. mendekoa.

· Errebala: Hiribilduaren harresiez kanpoko herrixka ez antolatua, bide batetan zehar eraikia. Adibideak: Bartzelonako errebala (*El Raval* auzoa bihurtu dena). Errioxako Naiarako errebala (Naiara Done Jakue bidean zegoen, eta Nafarroako Erresumaren hiriburuetako bat izan zen). Markinako errebala (Abesua). Durangoko errebalak (Ermodo, Kurutziaga, San Agustin, Intxaurrondo eta Pinondo). Bilboko Ibeni (Atxuri) eta Askao (Arenala) errebalak.

· Bastida: Erdi Aroan Frantziako hegomendebaldean –ingelesek zein frantsesek- sortutako hiri berri eredua, guztiz planifikatua, erregularra, plaza baten inguruan, merkatu-udaletxea (*halle* delakoa) jasotzen zuena. Adibideak: Biarnoko Nabarrengose (*Navarrenx*), *Lot-e- Garonne*ko Villereal eta Dordoñako Monpazier. Lapurdiko Bastida (*La Bastide Clairence*). Ikus http://eu.wikipedia.org/wiki/Bastida_(hirigintza).

- XVII-XVIII. mendeko hiri-hazkunde forma:

· Hiri neoklasikoa: Otxandategi arkitektoaren plana Zangotza Berria egiteko (600 x 500 m), 1787. Pedro Manuel Ugartemendiaren plana Donostiako alde zaharra berreraikitzeko, 1814. "*Bakearen portua*" izeneko plana Bilboko zabalgune berria egiteko Abandoko elizatean, Silvestre Perez, 1807: Bilbo komertzial eta handi egiteko proiektua, tokiko elizak (Abandoko Done Bikendi, La Concepción eta Santa Clara) plazen inguruan kokatuz eta ardatzen bidez lotuz; esaten da Christopher Wrenek 1666an Londres berreraikitzeko diseinatutako plan barrokoan oinarritu zela Perez; San Mames plaza erraldoia planteatzen du, ibaia eta portuarekin erlazionatutako biltegiak bertan ezarriz (hura eta Santa Clara lotzen dituen ardatzak hiria bi zatitan banatzen ditu, hots, bizitegi eta merkatalguneetan). Ur-plazak. Simetrian oinarritzen den plana da, baina ez bere osotasunean, zati ezberdinen tokiko simetrietan baizik.